

IA ESTUDIOIK

Bost urtetako sorkuntza

—
2021.02.26
2021.05.09

Tabakalera
Erakusketa-aretoa



Parastoo & Faraz Anoushahpour & Ryan Ferko
Nadia Barkate & Ignacio García
Bernd Behr
Erik Blinderman & Lisa Rave
Susana Cámara
Marianna Christofides
Estanis Comella
Sandra Cuesta
Itxaso Díaz & Cai Tomos
Sophie Dyer & Solveig Suess
Mirari Echávarri
Julen García
Gabriel Garcilazo
Harrotu Ileak
Maja Hodoscek
Izaro Ieregi
Sahatsa Jauregi & Julià Panadès
Eszter Katalin
Ainara LeGardon & Ignacio Córdoba
Alberto López & Manuel Prados
Claudia Lorenzo
Laura Maioz & Manu Muniategiandikoetxea
Harley Martínez
David Martínez Suárez
Fran Meana
Cristina Mejías
Ángela Millano & Julián Pacomio
Jorge Núñez de la Visitación
Miel Oyarzabal
Agnès Pe
Javier Rodríguez Pérez-Curiel
Kristina Solomoukha & Paolo Codelupi
Milena Rossignoli & Mikel Escobales
Natalia Suárez & Gómez Selva
Lisa Tan
Mar Torre
Philip Widmann



Estudiotik at. Bost urtetako sorkuntza erakusketa bereziki garrantzitsua da Tabakalerarentzat. Bost urte pasa dira Tabakalera eraikinak ateak berriz ere zabaldu zituenetik tabako-fabrika izateari utzi eta sorkuntza-fabrika bihurtzeko. Berriki ospatu dugu urteurrena eta, orain, urte hauetan Tabakalera garatu den ekoizpen artistikoaren hautaketa bat partekatu nahi dugu gure publikoarekin.

Tabakalera, inolako zalantzarik gabe, kulturarako sarbidea ematen duen plaza publiko handi bat da, arteaz, zineaz edo Medialabeko edukiez gozatzeko plaza; baina, gainera eta batez ere, sorkuntza-zentro handi bat da. Alderdi hori da, ziurrenik, ezezagunena, baina funtsezkoa da gure zereginean. Hori dela eta, 2021eko lehen erakusketa handian lan hori lehen aldiz ikusarazi nahi izan dugu.

Tabakalerako Arte Garaikidearen arloak antolatu du *Estudiotik at*, azken bost urteotan Artisten Gunean aritu diren sortzaile guztietatik 35ek egindako lan hautatuak biltzen dituen erakusketa. Eraikinaren hirugarren solairuan dagoen 1.000 m²-ko espazio handi horrek, publiko orokorarentzat ezezaguna denak, hainbat tailer, estudio eta ekipamendu ditu, artistek euren lana egin dezaten. Espazio bat ematen zaie, bai, baina baita topagune bat eta sorkuntza-prozesuan zeharreko akonpainamendua ere.

Tabakalera, hainbat jatorri, bizi-historia, jarrera artistiko eta diziplinatako artistak aritzen dira, eta hemen garatzen dute euren lana. Erakusketak azken bost urteotan sorkuntza-arloan gertatutakoari buruzko panoramika bat ikustera gonbidatzen gaitu, eta artisten eta publikoaren artean zubiak eraikitzeko, hainbat topaketa, hitzaldi eta tailer antolatuko dira erakusketak dirauen bitartean.

Estudiotik at erakusketak hemengo eta oraingo artea erakusten digu, eta, horrekin, sarbide pribilegiatua ematen digu artistek bizi eta partekatzen duten errealitate konplexua sinbolikoki zein pertsonalki nola lantzen duten ikus dezagun.

Tabakalera

Donostia

2021eko otsaila

ESTUDIOTIK VT

Bost urtetako sorkuntza

Estudiotik at. Bost urtetako sorkuntza erakusketak lehen aldiz aurkezten ditu Tabakalerako Artisten Gunean beren proiektuak gauzatu dituzten zenbait artisten lanak. Artisten estudioetan gertatzen diren sorkuntza-prozesuak agerian uzten dituen lanen multzoa da. 2015etik gaur arte, egonaldien nazioarteko programaren bidez, artista horiek aldi baterako egonaldiak egin dituzte zentroko hirugarren solairuko espazio honetan.

Estudiotik at, beraz, 35 proiektu baino gehiagok osatzen duten erakusketa bateratua da. Orain hemen erakusgai dauden lanetako asko beste testuinguru artistiko batzuetan egon dira ikusgai, ibilbide propioa egin dute tokiko eta nazioarteko zirkuituetan, eta, orain, sortu ziren lekura itzuli dira. Euren lanak hemen aurkezten dituzten artistek pintura, marrazkia, eskultura, instalazioa, argazkigintza, soinua eta bideoa lantzen dituzte, besteak beste; eta, horien bidez, praktika artistiko garaikidean gaur egun existitzen den aberastasuna eta egiteko modu heterogeneoa jartzen dituzten agerian. Lan-metodologiei dagokienez, hainbat artistak bakarrik egiten dute lan, baina badira lan kolektiboa gauzatzen dutenak ere, sorkuntza-prozesu partekatuetan, non elkarrizketa eta permeabilitatea sorkuntzaren beraren elementu bereizezin bihurtzen diren.

Erakusketan zehar, lanen eta gaien arteko loturak eta erresonantziak ikusi, sumatu eta irudikatu ditzakegu; izan ere, batzuetan, harremana dago horien artean, eta antzeko ikerketalerroak eta testuinguru komunak partekatzen dituzte. Erakusketa honekin, Tabakalerak Artisten Gunean sortutako prozesu artistikoen emaitzak plazaratzen ditu.

Memoria eta ibilbidea

Bost urte pasa dira Tabakalerak kultura garaikidearen nazioarteko zentro gisa ateak zabaldu zituenetik, eta urteurren hori baliatu dugu atzera begiratu eta laburbiltzeko, eta, beraz, memoria egiteko. Tabakalerak 2015ean zabaldu zituen ateak, eta, harrezkero, Artisten Guneak ibilbide, jatorri eta diziplina desberdineko ehun bat sortzaile eta proiektu hartu ditu. Zentroaren bost urteetan egin diren sei deialdiei esker, *Estudiotik at* osatzen duten hogeita hamar proiektutik gora erakutsi ditzaiegu gaurkoan. Erakusketa hau Artisten Gunean egindako prozesuak eta proiektuak erakusketa-formatuan aldizka erakutsiko dituen erakusketa-serieko lehena da. Horrela, prozesuak babestearen eta hedatzearen garrantzia azpimarratzen dugu.

Estudiotik at erakusketak iragana berreskuratu eta orainaldira ekartzen du, autoreekin eta euren proiektuekin konektatzen du berriro, sortu ziren lekura itzuli baitira. Lan batzuk beste erakunde batzuetan eginiko egonaldietan egin edo osatu dira, koprodukzio eta lankidetzen bidez; beste batzuk nazioarteko jaialdi eta bienaletan estreinatu dira.

Egoiliarrei egonaldian zehar eskaintzen zaien akonpainamendua erakundearen funtsezko zeregin bihurtu da. Alde horretatik, nabarmentzekoak dira Artisten Guneak sustatutako mintegiak eta topaketak, komisarioekin, kritikoekin, galeristekin edo erakunde publikoetako arduradunekin hitz egin eta eztabaidatzea helburu dutenak. Ate irekien jardunaldiek, *studio visit* direlakoez, aurkezpen publikoek edo tutoreek egiten dituzten akonpainamenduek ikuspegi berriak ematen dizkiete



Agnès Pe
Ardii Latx (1. fasea),
2020




proiektuei eta aberastu egiten dute egoiliarren esperientzia. Horiez gain, tokiko agenteekiko konexio horiek eta esperientziak, interesak eta ikerketak partekatzeak ere aberastu egiten dute tokiko kultur testuingurua.

Egonaldien nazioarteko izaerak tokiko eragileen eta kanpokoien artean sortzen den bizikidetzaren ezinbesteko bihurtzen du komunitatea indartzeari begira. Proiektzioaren eta nazioartekotzearen premisaren pean, tokikoa nazioarteko bihurtzen da. Tokiko eragileen parte hartzeak hurbilen dagoen komunitatearekiko konpromisoa bilatzen du, hori indartu eta barrutik kanporantz proiektatzeko.

Hortaz, erakusketa honek, *Estudiotik at* osatzen duten lanak aurkezteaz gain, horiek erakusgai jarri aurretiko prozesu artistikoei erreparatu nahi die. Kontzeptualizaziotik gauzatzera egiten den bidea ez da maiz erakusten. Joan-etorri horretan, artistek azken emaitza moldatzen dute, a priori baztertutako soberakina berriz hartu eta erabil dezaketelarik. Eta prozesu horren emaitza da hain justu gaur hemen erakusten dena.

**Sahatsa Jauregi
& Julià Panadès**
Mecheros de gasolina,
2019
Xehetasuna



Zirkulazio bikoitza

Estudiotik at. Bost urtetako sorkuntza erakusketak proposatzen du agerian eta nabarmen jartzea jendaurreko erakusketaren unean sorkuntza-prozesuaren eta ekoizpen artistikoaren artean dagoen harreman apurtezina. Horretarako, ezinbesteko garrantzia du ekoizpen-zentroan gertatzen den zirkulazio bikoitzak: Artisten Gunea eta Erakusketa-aretoa, norabide biko ibilbide bihurtzen da.

Lehen solairuan Erakusketa-aretoa dago eta hirugarrenean, aldiz, ekoizpen-gunea. Lehenengoak kultura garaikidera hurbiltzeko plaza publikoarena egiten du. Hirugarrenean ekoizpen artistikoa gertatzen da denbora errealean, artistek bertan lan egiten dute,

eta barrualde horretatik abiatuta kanporanzko trantsizioari ekin diezaiokete. Erakusketa eta sorkuntza ezaugarri esanguratsuak dituzten bi prozesu dira, tenporaltasunari eta esplorazio-modu desberdinei erantzuten dietenak; edonola ere, ezinezkoak lirateke bata bestea gabe.

Helburu horrekin, programa publikoaren zati batek indartu egiten du Artisten Gunea eta Erakusketa-aretoa modu estuagoan lotzeko ideia, bisita solasaldiek kasu. Martxoan, apirilean eta maiatzean, gainera, artista egoiliarrek euren estudioak zabalduko dizkigute, esku artean dituzten proiektuez hitz egin eta elkarrekin erakusketa ikuspegi anitzetatik ikusteko. Erakusketan dauden lanetara hainbat modutan hurbiltzeko aukera eskainiko digu horrek. Azkenik, Arte-Makina arte garaikideari buruzko ikastaroak ere bi espazio horiek igaroko ditu artista eta ikertzaileen laguntzaz.

Artistak

Tabakalerak erakusketa honetan parte hartzen duten artista guztiei eskerrak eman nahi dizkie, azkenik. Baita bost urte hauetan Artisten Gunera lan egitera eta euren esperientziak partekatzerara etorri diren guztiei ere; izan ere, haien ikerketek eta prozesuek aztarna garrantzitsua utzi dute bertan. Izan dadila lagin txiki hau, hautaketa hau, etortzear dagoen sorkuntza garaikidearen hauspo.



Eszter Katalin
*I Hold You and
You Hold Me,*
2019
Fotograma

Glosarioa

Artisten Gunea. Artistek, sortzaileek edo kultur eragileek arte proiektu bat abian jartzeko edo garatzeko Tabakalerako lekua. Bertan, arte-ekoizpenari loturik dauden prozesu ezberdinak gauzatzen dira. Artistek topagune honetara jo dezakete aholkularitza, baliabide tekniko edota lanerako espazioen bila, sektorearen profesionalizazioan laguntzeko hainbat zerbitzu eskaintzen baititu. Gainera, formakuntza, lan metodologiaren inguruko eztabaidak eta ikusgaitasuna garatzeko programak eskaintzen ditu.

Egoiliarrek. Artisten Gunean lan egiten duten artistak dira. Bertako zein nazioarteko egoiliarrek lau eta zortzi aste bitarteko egonaldiak egiten dituzte Tabakalera. Bitarte horretan, lan egiteko estudio bat egokitzen zaie, baita Tabakalera eskuragarri dauden baliabideak eta

zerbitzuak ere. Egoiliarrek Tabakalera eraikinean bertan hartzen dute ostatu, eta arte-ekoizpenak lantzeko dirulaguntza jasotzen dute. Tokiko testuinguruarekin harremanetan jartzen dira eta sarritan haien arteko kolaborazioa eta konplizitateak sortzen dira. Elkarlan horiek bertako ehun-kulturalean elkar eragiten dute.

Egonaldiak. Artistak Tabakalera denbora batez egotea, haien proiektuak garatzeko. Artisten Gunea hainbat egonaldi-modalitate eskaintzen ditu: batetik, elkarrekin kolaboratzera datozen artisten egonaldiak daude, eta, bestetik, arte-ekoizpena egitera datozen artisten egonaldiak. Bestalde, lan egiteko tokia eta baliabide-teknikoak behar dituzten bertako artista eta kolektiboentzako lan espazioak lagatzen dira. Egonaldiak iraun bitartean, estudioez



Sophie Dyer & Solveig Suess
Concrete Flux: Issue 5
Aesthetic Journalism,
2019



**Parastoo & Faraz
Anoushahpour
& Ryan Ferko**
*If Everything Changes
Quickly*, 2017
Fotograma

gain, artistek beste hainbat baliabide dituzte eskura, hala nola, errebelatzeko labotaregiak, ikus-entzunezko postprodukzioa egiteko kabinak eta gorputza eta arte-biziak lantzeko platoa. Egonaldian dauden artisten lanak ezagutzera emateko, Lantegi Irekiak antolatzen dira urtean bitan, artisten estudioak parez-pare ireki eta lan prozesuak publikoari ezagutzera emateko. Halaber, artistekin solasaldiak, aurkezpenak eta formakuntzak eskaintzen dira.

Estudioak. Gaur egun, Artisten Gunean hamar estudio daude. Horietako zazpi, tamaina ezberdinetako zurezko estruktura modularrak dira. Artista edo kolektibo bakoitzari estudio bat egokitzen zaio eta lan-espazio hori bere beharretara egokitzen du. Estudioek, gutxinaka-gutxinaka, bertan lan egiten duten artisten izaerarekin bat egiten dute.

Arte-ekoizpena. Artelan bat egitearen prozesua da. Bakarkakoa edo taldean egin daiteke, isilean edo zarataz inguratuta, ordenagailu baten laguntzaz edo rotaflexa erabilita sortutakoa. Ekoizpen bakoitzak bere erritmoa du. Artistek hainbat arte-diziplina jorratzen dituzte: pintura, eskultura, performancea, soinua edota ikus-entzunezkoa. Sorkuntza prozesuaren fase ezberdinetan iristen dira: kontzeptualizazio fasean, ekoizpean fasean edota postprodukzioan. Artisten Guneak sorkuntza prozesuak sustatu eta ahalbidetzen ditu, eta prozesu horiek guztiek ez dute beti artelan bat emaitza gisa. Saiakerak, entseguak edota porrotak prozesu horien parte dira baita ere.

Nadia Barkate & Ignacio García

(Bilbo, 1980/Madril, 1987)

Tiempos mejores, 2015

Nadia Barkate

Izenbururik gabe

Zianotipiak

Ignacio García

Resolución desafortunada

Caída del valor

Error de navegación

Liberalización del espacio

Obsolencia programada

Tinta eta akuarela paper gainean

Sandra Cuesta

(Hondarribia, 1976)

BidaSsoa. Equipo, 2016

Argazkia koloretan

Harley Martínez

(Terrassa, 1993)

El Milagro Gipuzkoa, 2016

Argitalpena, 96 orrialde,

200 aleko edizioa

Kristina Solomoukha & Paolo Codelupi

(Kiev, 1970/Singapur, 1974)

The Ambassador's Body, 2017

Bideoa, kolorea, soinua. 32'

David Martínez Suárez

(La Hueria, 1984)

Black Hole, 2017

Manos

Inprimaketa kromogenikoa

PLOWSHARE

Marrazketa kalko-paperekin

eta testu mekanografiatuarekin

Estrellas

Altzairu forjatua

Itxaso Díaz & Cai Tomos

(Gallarta, 1974/Gales, 1979)

Las historias del cuerpo, 2017

Bideoa, kolorea, soinua, 13'

Parastoo Anoushahpour &**Faraz Anoushahpour & Ryan Ferko**

(Teheran, 1986/Teheran, 1987/

Mississauga, 1987)

If Everything Changes Quickly, 2017

Bideoa, kolorea, soinua, 18'

Jorge Núñez de la Visitación

(Santurtzi, 1983)

Temple of Doom, 2017-2019

VHS bideoa, soinua, 46'

Imagen 34

(Palentzia, 1986)

El Seco nombró a cheb Ruben (alias el último romántico, padre de la pena), ok interesante, 2018

Teknika anitzak

Izaro Ieregi

(Algorta, 1987)

Feroz eta kabala, 2018

Instalazioa: Performancearen

bideo-proiektzioa eta estruktura

tubularrak

Natalia Suárez & Gómez Selva

(Vitoria-Gasteiz, 1994/Murtzia, 1994)

Coche de plástico en un palet, 2018

Natalia Suárez

Marrazkiak: Arkatza paperean

Pinturak: Oleoa mihisean

eta paperean

Gómez Selva

Arras (1), 2020

Kotoizko paperean inprimatutako argazki digitala

Tora, Tora, Tora!, 2018

Burdina forjatuzko pieza, paperean inprimatutako bi argazkirekin

Tora, Tora, Tora!, 2020

Paperean inprimatutako argazkiak

Cristina Mejías

(Jerez de la Frontera, 1986)

Counting Histories. The Host and the Ghost, 2018

Bideoinstalazioa eta argitalpena

Ángela Millano & Julián Pacomio

(Vitoria-Gasteiz, 1987/Mérida, 1986)

Make It, Don't Fake It, 2018

Objektuak, posterrak eta audioa

Objektuen diseinua: Blanca G. Terán

Marianna Christofides

(Txipre, 1980)

It Exhausts my Elbow, 2018

Filminen artxibategiak, risografiak

Gabriel Garcilazo

(Cuernavaca, 1980)

Rojo 40, 2018

Trinidad de la obesidad, 2018

Marrazkiak

Alberto López Baena & Manuel Prados

(Sevilla, 1979/Sevilla, 1981)

El jardín invasor (Psidium hortus), 2018

Instalazioa

Egonaldi hau Cristina Enea

Fundazioaren eta Tabakaleraren

arteko kolaborazioa da

Artelanen zerrenda ordena kronologikoan

Claudia Lorenzo

(Logroño, 1988)
Mi casa envuelta, 2019
Txukela, 2019
Instalazioa

Sahatsa Jauregi & Julià Panadès

(Itaparica, 1984/Mallorca, 1981)
Mecheros de gasolina, 2019
Instalazioa

Philip Widmann

(Berlin, 1980)
Roads to the Ruins: A Chronology, 2021
80 diapositiba

Mirari Echávarri

(Iruña, 1988)
Cuerpos #2 Skin Picking, 2019
Marrazkiak

Susana Cámara Leret

(Madril, 1982)
Geofonías del lúpulo, 2019
LP12" biniloa (45rpm), argazkiak,
grafika. 100 aleko edizio eksklusiboa
Egonaldi hau Cristina Enea
Fundazioaren eta Tabakaleraren
arteko kolaborazioa da. Madrilgo
erkidegoaren 2019ko Ikusizko
Arteen Sorkuntza dirulaguntzari
esker garatutakoa eta SAT Lúpulos
de León-en laguntzarekin

Eszter Katalin

(Budapest, 1991)
I Hold You and You Hold Me, 2019
Lau kanaleko instalazioa.
HD bideoa, kolorea, soinua (estereoa)

Maja Hodoscek

(Celje, 1984)
See Me, 2019
HD bideoa, kolorea, soinua, 21'
Iñigo Azpitartek antzetzua

Ainara LeGardon & Ignacio Córdoba

(Bilbo, 1976/Madril, 1986)
*Simbiosis sonora. Respirar
y contrarrespirar juntos*, 2019
Ignora, 2021
Soinu-pieza, 9'

Julen García

(Beasain, 1993)
A Body is Never Just a Body, 2019
BALE, BALE, 2019
Tolestutako inpresioak

Miel Oyarzabal

(Durango, 1984)
2013, 2019
Melaminazko tabloiak

Agnès Pe


(Lleida, 1985)
Ardii Latx (fase 1), 2020
QR kodea eta bandera

Javier Rodríguez Pérez-Curiel

(Oviedo, 1978)
STASIS, 2020
Reel Around
Stasis: movimiento y detención
*Sense of eternal newness: leftovers /
denn die toedten ritten schnell*
Mihizadura

Estanis Comella

(Lleida, 1978)
OPEN SOURCE X DATA
Notations and Materials for
VEX - UNGRAVITY, 2020
Paperaren gaineko
inprimaketa digitala



Cristina Mejías

Counting Histories.
The Host and the Ghost, 2018
Instalazioaren xehetasuna

Milena Rossignoli & Mikel Escobales

(Quito, 1990 / Arrasate, 1991)

Proyecto, 2020

Milena Rossignoli

Serie Archivio Telescópico, 2020

Far coincidere

Zuraren, metalaren,
parapente-sokaren, grabitatearen
gaineko lurruna

Resta

Zura, karbono-zuntza,
nylon islatzailezko haria,
parapente-polea, tentsioa eta
grabitatea. Intsentsua: Cristina
Enea parkean berreskuratutako
pinuzko erretxina eta Colocasia
eskulentaren orria

Condizione telescopica

Esmaltea eta grabatua beira-
zuntz gainean

Mikel Escobales

Interfusions. Where is S?, 2020

Oihal metalikoa, pigmentua, kola,
grapak, apar biguna

Protocols. Behave as if, 2020

Metalezko oihala, pigmentua,
polietilenoazko kola, ura, gatza

Figures. 8 hours, 6 days in a

week, 2021

Aluminio anodizatua

Laura Maioz & Manu

Muniategiandikoetxea

(Hondarribia, 1986 / Bergara, 1966)

Zer dago kaxa barruan?, 2020

A4 tamainako azetato orriak, tinta
iraunkor beltzarekin

Zintarekin egindako diagrama

Lisa Tan

(Syracuse, 1973)

Burnout, 2020

Prozesuan dagoen lana (bideo-gidoia
eta galdaketa-bengalak)

Fran Meana

(Avilés, 1982)

Laboratorio de formas, 2018

Invocation Spell

VVVV partxea, plaka bakarreko
prozesadorea, kutxa akrilikoa
eta 32 hazbeteko bi plasma

Sophie Dyer & Solveig Suess

(Londres, 1986 / Londres, 1990)

Concrete Flux: Issue 5 Aesthetic

Journalism, 2019

Inpresio digitala

500 aleko argitalpena



Itxaso Díaz & Cai Tomos

Las historias del cuerpo, 2017

Fotograma

TABAKALERA



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**



Andre Zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia / San Sebastián

Erakusketa-aretoaren ordutegia

Asteartea - Igandea

12:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

Astelehenetan itxita

Informazioa

T +34 943 118 855

E info@tabakalera.eus

Bulegoak

T +34 943 011 311

E tabakalera@tabakalera.eus